

Liburutegiak aro digitalera egokitzen

Donostiako liburutegiak 33 irakurgailu jarri dituzte maileguan; ekimenak arrakasta izan du lehen astean.

EKAITZ AGIRRE. DONOSTIA

Garaiak aldatzen ari dira, eta denboraren joan-etorriarekin ohiturak ere bai. Donostiako udal liburutegiek liburu elektronikoen irakurgailuak jarri dituzte maileguan, proba gisa, eta lehenengo astean ekimenak izan duen harrera ikusita, arduradunen iragarpen eta usteak bete dira. Hiriko udal liburutegietan 33 gailu elektroniko jarri dituzte maileguan, eta zaila da haietakoren bat mailegagarri aurkitzea. "Nobedadea delako izango da, akaso, baina guztiak hartuta daude. Ez dakit irakurtzeko edo liburu digitalak nola funtzionatzen duen ikasteko hartzen dituzten, baina haxe da dugun azken alea, argitu du Alderdi Ederreko liburutegiko langile Jaione Errastik.

Manuel Vazquez da azken irakurgailu hori maileguan hartu duena. Lehendik ezagutzen ditu liburu digitalak, baina haxe du maileguan hartutako lehenengoa. "Hau da etorkizuna. Oraindik ez dute asmatu irakurgailu eroso eta aproposa, baina hau da bidea.

Musikan aspaldi hartu dio gaina euskarri digitalak fisikoari, eta nekez saltzen dira diskoak CD formatuan. "Liburuarekin halakorik gertatzea zailagoa dela diote hainbatek, baina halako liburu batean bostehun edo seiehun nobela sar daitezkeela aintzat hartu behar da. Arina da, edozer lekutara eraman daiteke, eta, irakurtzeko formatu erosoarekin asmatzen dutenean, arrakasta izango du, gehitu du Vazquezek.

Maileguan jarri dituzten 33 liburu elektronikoetako bakoitzak seiehundik gora titulu hartzen ditu. Guztiak dira lizentzia librea dutenak, egile eskubiderik behar ez dutenak; gaztelaniazkoak gehienak, 594, eta euskaraz eta ingelesez idatzitakoak besteak, 69 eta 50, hurrenez hurren.

Euskarazkoetan, Auspoa bildumakoak dira 69 lanak, eta bere garaian Euskararen Patronatuak digitalizatu zituen. Denboraren eta euskarri digitalaren bilakaeraren arabera mugimendua eta aldaketak izango dituzte edukiek.

Hiru asterako mailegua

Hiriko 11 liburutegitan eskura daitezke: udaletxe azpiko nagusian, Casares-Tomasene, Ernest Lluch, Okendo Intxaurren Berri, Egia, Loiola, Lugaritz, Larratxo eta Larrotxenen. Alderdi Ederren hamahiru gailu dituzte, eta hiruna edo bina gainerakoetan. Erabiltzaileek 21 eguneko mailegua egin dezakete, eta liburuak itzultzean galdeketa labur bat erantzun behar dute. "Zer moduz moldatu diren eta zer iruditu zaien jakiteko modua izango dugu, azaldu du Jaione Errastik.

Gailu sinpleak dira, hiru eredutakoak: iLiad, Cybook eta Papyre. Liburu arinak, baina biltzen dituzten fundek sendotasuna ematen diete. Pantaila ez da ukimenekoa, eta, hortaz, aukera guztiak azpiko aldean dituen hamalau teklen bidez erabakitzen dira. Euskarri horretan irakurtzeko ohiturarik ez dago oraindik, baina nork zuen egunkaria Interneten irakurtzekoa orain gutxi?